AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

487

1830/2011 EBAZPENA, abenduaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Araceli Lozano Otero andrea Mendaroko Ospitaleko Pertsonaleko zuzendari kargutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 10eko 5719/2009 Ebazpenaren bidez, Araceli Lozano Otero andrea izendatu zen Mendaroko Ospitaleko Pertsonaleko zuzendari.

Zuzendaritza Nagusi honek ikusi ditu ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikagarriak diren gainerako xedapenak, eta

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Araceli Lozano Otero andrea Mendaroko Ospitaleko Pertsonaleko zuzendari kargutik kentzea eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2011ko abenduaren 16tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Giza Baliabideen Zuzendariordetzari eta Mendaroko Ospitaleari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 9a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.